

Airera Egindako Emisioak Neurtzeko, Zenbatesteko eta Kalkulatzeko Gidaliburu Teknikoa

- EPER, Poluzioa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko uztailaren 1eko 16/2002 Legea
- EPER inbentarioa. 2000ko uztailaren 17ko EBren Erabakia

ARGITARATZAILEA:

© IHOBE – Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

TXOSTENAREN EGILEA:

Labein Fundazioa, IHOBE, S.A.rentzat

2005eko Azaroa

AURKEZPENA

Irailaren 24ko Kontseiluak ezarritako 96/61/EE Zuzentarauak, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuei buruzkoak –**IPPC** Legea deitzen zaio–, ingurumen-legeriaren arloan ikuspegi berritzaile bat proposatu du. Izan ere, zenbait kontzeptu berri hartzen ditu kontuan, besteak beste: ikuspegi osatu eta integratzailea, ingurumena multzo gisa hartzen duena; erabil daitezkeen teknika onenetan oinarrituta aldizka-aldizka berrikus daitezkeen emisio-mugak ezartzea; informazioa trukitzea eta informazioa gardena izatea; baimen integralak; etab.

Halaber, Zuzentaru horren 15. artikulua Europako emisioen eta emisiogileen inbentarioa (EPER) egitea barne hartzen du. EPER inbentarioa 2000/479/EE Erabakiaren bidez ezarri da. Horren bidez, EBko estatu kideek IPPC Zuzentaruari (I. eranskina) aipatzen diren industria-iturrietatik sortzen diren 50 substantzia poluitzaileen datuak bildu eta Europako Batzordera bidali behar dituzte.

Lan horietan, urtean uretara eta atmosferara isurtzen diren eta muga-balioak gainditzen dituzten poluitzaileen kantitatea adierazi behar da (kg/urte). Bai poluitzaileak, bai muga-balioak erabakiaren II. eranskinean zehaztu dira, eta zenbatetsi, neurtu edo kalkula daitezke.

Esparru horretan, Gidaliburu hau, Europako Batasuneko ingurumen-politikarekin bat datorren politika garatzeko gure herrian ezartzen ari garen Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) tresnetako bat da. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila ari da koordinatzen, otsailaren 27ko 3/1988 Lege Orokorrak –Euskal Autonomia Erkidegoan Ingurumena Babesteari buruzkoa– ezartzen duenaren arabera.

Gida hau egiteko, kontuan hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden prozesuak. Eremu geografiko horretatik kanpo erabiliz gero, akatsak egin litezke.

ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu enpresa hauei gidaliburu honetan ekarpenak egiteagatik eta sektoreari buruz dakitena eta sektorean duten eskarmentua guri eskaintzeagatik.

- “ Pasaiako Zentral Termikoa
- “ Santurtziko Zentral Termikoa
- “ Productos de Fundición, S.A

Enpresa horien guztien laguntzarik gabe, ezin izango genuen gidaliburua egin.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	1
ESKERRAK	2
0.- GIDALIBURUAREN XEDEA	5
1.- IPPC ZUZENTARAU/LEGEA eta EPER ERABAKIA SEKTOREAN..	7
1.1.- IPPC ZUZENTARAU/LEGEA SEKTOREAN	7
1.2.- EPER ERABAKIA SEKTOREAN	11
1.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO.....	12
1.3.- EMISIOEN BALIOESPENA	13
2.- ELEKTRIZITATE-SORKUNTZA	17
2.1.- PROZESUAREN DESKRIBAPENA	17
2.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK: POLUITZAILEEN IDENTIFIKAZIOA.....	19
2.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO EMISIOEN BALIOESPENA.....	21
2.4.- EMISIOEN KALKULUA. ADIBIDE PRAKTIKOA.....	22
3.- KOKE-INSTALAZIOAK	25
3.1.- EKOIZPEN-PROZESUAREN DESKRIBAPENA.....	25
3.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK: POLUITZAILEEN IDENTIFIKAZIOA.....	27
3.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO EMISIOEN BALIOESPENA.....	29
3.4.- EMISIOEN KALKULUA. ADIBIDE PRAKTIKOA.....	32
4.- BIBLIOGRAFIA.....	33
ERANSKINAK.....	35
I. APLIKATU BEHARREKO LEGEAK (INDARREAN DAUDENAK ETA IZANGO DIRENAK).....	39
II. ATMOSFERA-POLUITZAILEAK NEURTZEKO METODOAK.....	47
III.NEURTZEKO AZPIEGITUREN ZEHAZTAPENAK.....	59
IV. ESTEKA INTERESGARRIAK	65
V. SEKTOREETAKO GIDALIBURUEN ZERRENDA	69

0.- GIDALIBURUAREN XEDEA

EPER Airea Gidaliburu honen xedea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarentzat eta EAeko sektorearentzat tresna praktikoa izatea da. Honekin, "Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen" (IPPC Legea) mendean dauden "Errekuntza-instalazioko" enpresek eta erakundeek parametro poluitzaileak eta horien ezaugarriak identifikatzeko, eta neurtzeko, zenbatesteko eta kalkulatzeko metodoak ezagutzeko aukera izango dute.

Gidaliburu honekin, enpresek EAeko Ingurumen Organoari ekarpenak egin ahal izango dizkiote, aurrez baliozkotutako metodoak erabiliz, bai neurketa-datuetatik, bai gidaliburu honetan bildutako emisio-faktoreetatik abiatuz, edo zenbatespen-metodoak erabiliz, bestelako daturik ez dagoen kasuetan.

Gidaliburu honek emisioak neurtzeko ekipoei, instalazioei (laginak hartzeko instalazio-tximiniak) eta neurtzeko eta analizatzeko metodologiari buruzko informazio praktikoa osagarria du.

1.- IPPC ZUZENTARAU/LEGEA eta EPER ERABAKIA SEKTOREAN

1.1.- IPPC ZUZENTARAU/LEGEA SEKTOREAN

Poluzioaren kontrol integratua ingurumeneko baimen integratuan oinarritzen da; hori, hain zuzen ere, esku-hartze administratibo berria da eta orain arte bete beharreko ingurumen-baimenen multzo zabala ordeztu eta biltzen du. Horrek balio erantsia ematen dio, banakoen mesedetan, administrazioeko mekanismoak izugarri sinpletzen baititu.

Lege hori indarrean sartzean, hainbat ingurumen-baimen indargabetu dira, hala nola hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari dagozkionak –errausketarenak barne–, komunitate barneko arroetako ur kontinentaletako isurketei dagozkienak, itsasoko nahiz lehorreko eremu publikoetara –lehorretik itsasora– egiten diren isurketei dagozkienak eta poluzio atmosferikoari dagozkionak. Halaber, gai arriskutsuak isurtzeari dagokion salbuespen-erregimena indargabetzen da.

“Errekuntza” sektoreak azpisektore hauek hartzen ditu bere baitan: Errekuntza-instalazioak, Petrolioaren eta gasaren finketa, Koke-instalazioak eta Ikatza Gasifikatzeko eta Likidotzeko instalazioak. Horiek epigrafe hauekin identifikatzen dira IPPC legearen arabera:

IPPC Legearen eta EPER Erabakiaren arabeko jardueren eta instalazioen kategoria	NOSE-P kodea	NOSE-P prozesua
1.1. “Erretzeko potentzia termikoa 50 MW baino handiagoa duten errektuntza-instalazioak”.	101.01-05	Errekuntza
1.2. Petrolio- eta gas-findegia	105.08	Petrolio-produktuen prozesaketa (erregai-ekoizpena)
1.3. Koke-instalazioak.	104.08	Koke-bateriak (kokearen, petrolio-produktuen eta erregai nuklearraren ekoizpena)
1.4. Ikatza likidotzeko eta gasifikatzeko instalazioak	104.08	Beste zenbait erregai solido eraldatzea (kokearen, petrolio-produktuen eta erregai nuklearraren ekoizpena)

OHARRAK.

- 1.1. Barne hartzen ditu energia elektrikoa ekoizteko instalazioak eta baterako sorkuntzako instalazioak, galdarak, labeak, lurrin-sorgailuak edo industria batean dagoen beste edozein ekipamendu edo errektuntza-instalazio, jarduera nagusia hori bada edo ez bada ere.
- 1.2. Petrolio-findegia ere sektore honetan sartzen dira, baina EAEn berriaz tratatzen direnez, gidaliburu honetan aipatu baino ez dira egingo.
- 1.3. Koke-instalazioak, behin-behingo, berriazko gidaliburu batean sartu dira. Biekin behin betiko bat egiteko asmoa dago.
- 1.4. EAEn ez dago koke-instalaziorik.

Hona hemen zenbait definizio:

Instalazioa: IPPC Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen diren jarduerak –bat edo gehiago– eta establezimenduko jarduerekin erlazio tekniko zuzena duten jarduerak – emisioetan eta poluzioan eragin dezaketenak– gauzatzen diren unitate tekniko eta egonkorra.

I. eranskineko jarduera: IPPC Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen den jarduera, EPER gidaliburuaren A3 eranskinean zehazten diren kategorien arabera.

Gunea: titularrak I. eranskinean azaltzen diren jarduerak –bat edo gehiago– gauzatzen dituen instalazio bat edo gehiago biltzen dituen establezimendu industrialia.

2002ko uztailaren 1eko IPPC Legearen arabera (IPPC Zuzentaruua estatu espainiarrera ekarrita):

- * Gaur egungo instalazioek **2007ko urriaren 30a arteko epea dute egokitzeko**; hortik aurrera, dagokien ingurumen-baimen integratua izan behar dute.
- * **Ingurumen-baimen integratuak gehienez 8 urteko epea** izango du, eta, interesdunak hala eskatuta, hurrengo eperako berritu ahal izango da. Instalazioaren titularrak epemuga amaitu baino **10 hilabete lehenago, gutxienez, eskatu behar du baimena berritzea.**

**INSTALAZIOETAKO TITULARREN BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-
BAIMEN INTEGRATUAREN EDUKIAK**

Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren jarduera industrialak gauzatzen diren instalazioetako titularrek honako hauek bete behar dituzte:

- Ingurumen-baimen integratua eskuratu eta horretan ezartzen diren kondizioak bete behar dituzte.
- Aplikatu beharreko legeek eta ingurumen-baimen integratuak berak informazioa kontrolatzeko eta hornitzeko ezartzen dituzten betebeharrak bete behar dituzte. Instalazioetako titularrek urtean behin, gutxienez, jakinarazi behar dizkiote EAERI instalazioari dagozkion emisio-datuak (ikus lege-baldintzak 1.2 atalean).
- Hauek jakinarazi behar dizkiote organo eskudunari, ingurumen-baimen integratua eman ahal izateko:
 - instalazioan egin nahi den edozein aldaketa –funtsezkoa izan ala ez izan–;
 - titulartasuna aldatzea;
 - ingurumenean eragina izan dezakeen edozein gertaera edo istripu.
- Zaintzen, ikuskatzen eta kontrolatzen dihardutenei laguntzea eta haiekin batera jardutea.
- Lege horretan ezartzen diren beste betebeharrak eta aplikatu behar zaizkion gainerako xedapenak betetzea.

”Informazioari, komunikazioari eta informazioaren eskuragarritasunari” dagokienez:

Instalazioetako titularrek **urtean behin jakinarazi behar dituzte, gutxienez,** dagokien autonomia-erkidegoan, **instalazioaren emisioei buruzko datuak.**

Instalazioetako titularrek ingurumen-baimen integratua eskuratzeko erakunde eskudunari eman behar dioten informazioak, gutxienez, hauek izan behar ditu:

- ❑ Lurzorua eta lurpeko urak babestuta daudela bermatzen duten aginduak, hala dagokionean.
- ❑ Instalazioak sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedura eta metodoak.
- ❑ Urruneko edo mugaz gaindiko poluzioa minimizatuko dela bermatuko duten aginduak, hala dagokionean.
- ❑ Emisio- eta hondakin-mota guztiak tratatzeko eta kontrolatzeko erabiliko diren sistemak eta prozedurak –neurtzeko metodologia zehaztuta–, maiztasuna eta emisioak ebaluatzeko prozedurak.
- ❑ Ohikoak ez diren egoeretan ustiatzeko kondizioei dagozkien neurriak, hala nola martxan jartzeari, ihesei, funtzionamendu-akatsi, denboraldi baterako gelditzei edo behin betiko ixteari dagozkienak.

Ingurumen-baimen integratuak, halaber, aplikatu beharreko muga-balioen denborazko salbuespenak izan ditzake, baldin eta instalazioaren titularrak ondoren azaltzen diren neurrietako bat aurkezten badu. Neurri horiek administrazio eskudunak onartu behar ditu eta ingurumen-baimen integratuan aipatu behar dira. Hauek azaldu behar dira:

- ❑ 6 hileko epean, gehienez, emisioen muga-balioak beteko direla bermatzen duen birgaitze-plana.
- ❑ Poluzioa gutxiaraziko duen proiektua.

1.2.- EPER ERABAKIA SEKTOREAN

Batzordearen 2000/479/EE Erabakia EPER Erabaki gisa ezagutzen da. Erabaki horretatik, batez ere, EBko estatu kideentzako baldintzak sortu arren, zuzenean eragiten du hainbat industria-sektoretan. Estatu kideek inbentarioa egin behar dute beren lurraldean, eta dagozkien datuak jakinarazi behar dizkiote Batzordeari. Industriak emandako informazioan oinarrituta, batez ere, bilduko dira datuak. EAEn kasuan, ingurumenaren eskuduntza gure autonomia-erkidegoko organo eskudunari transferitu zaio estatu espainiarretik.

EPER Erabakiaren arabeko lege-baldintzak taula honetan biltzen dira:

EPER ERABAKIAREN ondorio diren lege-baldintzak	
Nor behartzen du ERABAKIAK?	
<input type="checkbox"/>	EPER Erabakiak estatu kideak behartzen ditu, horiek baitute instalazioetako datuak biltzeko ardura.
Zertara behartzen du ERABAKIAK?	
<input type="checkbox"/>	Erabakiaren arabera, IPPC Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen diren jarduera industrialak – bat edo gehiago– gauzatzen diren banakako gune guztiek atmosferara eta uretara egiten dituzten isurpenen berri eman behar diote Batzordeari.
Zer emisio jakinarazi behar da?	
<input type="checkbox"/>	Erabakiaren I. eranskinean biltzen diren 50 poluitzaileen zerrendatik atmosferara eta uretara isurtzen direnak jakinarazi behar dira.
Nola jakinarazi behar da?	
<input type="checkbox"/>	EPER Erabakiaren A2 eranskinean aipatzen den jakinarazpen-inprimakian azaltzen den eskemari segitu behar zaio.
Zer maiztasunekin jakinarazi behar da?	
<input type="checkbox"/>	Hasieran 3 urtean behin. Lehen txostena 2003ko ekainean aurkeztu behar da, eta 2001eko emisioei buruzko datuak izan behar ditu; horiek ez badaude, 2003. edo 2001. urteetakoak izango ditu. 2008tik aurrera, urtean behin jakinaraziko zaio Batzordeari, abenduan.
Nori eragingo dio EPER Erabakiak?	
<input type="checkbox"/>	Erabakiak EBko estatu kideak behartzen baditu ere (horiek baitute EPER estatu mailan ezartzeko ardura), eragin handiagoa izango du IPPC jarduerak gauzatzen dituzten industrietan eta erakundeetan eta Erabakiaren A1 eranskinean azaltzen den substantzia poluitzaileen zerrendakoak isurtzen dituzten industrietan.

Informazio gehiago behar baduzu:

www.eper-euskadi.net

Atmosferako emisioen muga-balioak	AIREA	EPER poluitzaileak/substantziak	URA	Uretara egindako emisioen muga-balioak
kg/urte		Ingurumen-gaiak		kg/urte
100.000	X	CH ₄		
500.000	X	CO		
100.000.000	X	CO ₂		
100	X	HFC1		
10.000	X	N ₂ O		
10.000	X	NH ₃		
100.000	X	NMVOG		
100.000	X	NO _x (NO ₂ gisa)		
100	X	PFC2		
50	X	SF ₆		
150.000	X	SO _x (SO ₂ gisa)		
		Nitrogenoa guztira (N gisa)	X	50.000
		Fosforoa guztira (P gisa)	X	5.000
kg/urte		Metalak eta konposatuak		kg/urte
20	X	As eta konposatuak (Arseniko elemental gisa)	X	5
10	X	Cd eta konposatuak (Kadmio elemental gisa)	X	5
100	X	Cr eta konposatuak (Kromo elemental gisa)	X	50
100	X	Cu eta konposatuak (Kobre elemental gisa)	X	50
10	X	Hg eta konposatuak (Merkurio elemental gisa)	X	1
50	X	Ni eta konposatuak (Nikel elemental gisa)	X	20
200	X	Pb eta konposatuak (Berun elemental gisa)	X	20
200	X	Zn eta konposatuak (Kobre elemental gisa)	X	100
kg/urte		Substantzia organokloratuak		kg/urte
1.000	X	1,2-dikloroetanoa (DCE)	X	10
1.000	X	Diklorometanoa (DCM)	X	10
		Kloroalkanoak (C10-13)	X	1
10	X	Hexaklorobentzenoa (HCB)	X	1
		Hexaklorobutadienoa (HCBd)	X	1
10	X	Hexakloroziklohexanoa (HCH)	X	1
		Konposatu organohalogenatuak (AOX gisa)	X	1.000
0,001	X	PCDD+PCDF - dioxinak eta furanoak (Teq gisa) ³		
10	X	Pentaklorofenola (PCP)		
2.000	X	Tetrakloroetilenoa (PER)		
100	X	Tetraklorometanoa (TCM)		
10	X	Triklorobentzenoa (TCB)		
100	X	1,1,1-trikloroetanoa (TCE)		
2.000	X	Trikloroetilenoa (TRI)		
500	X	Trikloroemetanoa		
kg/urte		Beste zenbait konposatu organiko		kg/urte
1.000	X	Bentzenoa		
		Bentzenoa, Toluenoa, etilbentzenoa, xilenoak (BTEX gisa)	X	200
		Difenileter bromatua	X	1
		Eztainua duten konposatu organikoak (Sn total gisa)	X	50
50	X	Hidrokarburo aromatikopolizikiokak ⁴	X	5
		Fenolak (C total gisa)	X	20
		Guztizko Karbono organikoa – TOC (C total edo OEK/3 gisa)	X	50.000
kg/urte		Beste zenbait konposatu		kg/urte
		Kloruroak (Cl total gisa)	X	2.000.000
10.000	X	Kloroa eta konposatu ez-organikoak (HCl total gisa)		
		Zianuroak (CN total gisa)	X	50
		Fluoruroak (F total gisa)	X	2.000
5.000	X	Fluorra eta konposatu ez-organikoak (HF gisa)		
200	X	HCN		
50.000	X	PM ₁₀		
37		Poluitzaile-kantitatea		26

¹ Hauen batura: HFC23, HFC32, HFC41, HFC4310mee, HFC125, HFC134, HFC134a, HFC152a, HFC143, HFC143a, HFC227ea, HFC236fa, HFC245ca.

² Hauen batura: CF₄, C₂F₆, C₃F₈, C₄F₁₀, C-C₄F₈, C₅F₁₂, C₆F₁₄.

³ TEQ: toxikotasun-baliokideak, PCDD eta PCDF-en 17 isomeroren emisioa, 2,3,7,8-CDD isomerorik toxikoenarekin lotutakoa.

⁴ Borneff-en 6 HAPen batura: Benzo(a)pirenoa, Benzo(ghi)perilenoa, Benzo(k)fluorantenoa, Fluorantenoa, Indeno(1,2,3 – cd)pirenoa, Benzo(b)fluorantenoa.

Oharra: muga-balio horietatik gorako kasuetan, estatu kideek Europara bidali behar dute informazioa.

1.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN

OINARRITUTAKO

EMISIOEN BALIOESPENA

Emisio-datu guztiak letra hauekin identifikatu behar dira: **N** (neurtua), **K** (kalkulatua) edo **Z** (zenbatetsia); horiek, hain zuzen, emisioak zehazteko zein metodo erabili den adierazten dute. Eta kg/urte-tan adieraziko dira, hiru digitu esanguratsu erabiliz.

Jakinarazitako datua gunean dauden iturrietatik egindako emisioen batura denean, iturri horietan metodo desberdinak erabil daitezkeenez, kode bakarra ipiniko zaio datuari ('N', 'K' edo 'Z'); kode hori jakinarazitako emisioaren guztizko datuan ekarpen handiena egin duenari dagokion metodoarena izango da.

Ondoren, **NEURTUA**, **KALKULATUA** eta **ZENBATETSIA** terminoak definitzen dira.

NEURTUA

Metodo normalizatuak edo onartuak erabiliz egindako neurketetan oinarritutako emisio-datua da. Hala ere, neurketa horietako emaitzak urteko emisio-datu bilakatzeko, kalkuluak egin behar dira nahitaez. Datu neurtuak hauek betetzen ditu:

- ❑ Gunearen berariazko prozesuak zuzenean kontrolatuta lortzen diren emaitzetan eta emisio-bide jakin baterako poluitzaileen kontzentrazioaren neurketa errealetan oinarrituta ondorioztatzen dira.
- ❑ Neurketa-metodo normalizatu edo onartuen emaitza da.
- ❑ Epe labur bateko neurketa puntualen emaitzetan oinarrituta kalkulatzen da.

Ondoren, neurketetan oinarrituta urteko emisioak kalkulatzeko (kg/urte) aplikatu behar den formula orokorra azaltzen da:

Kontzentrazioa mg/Nm³-tan emana badago:

$$\text{Emisioak (kg/urte)} = (\text{Kontzentrazioa (mg/Nm}^3\text{)} \times \text{Emaria (Nm}^3\text{/h)} \times \text{Instalazioaren funtzionamendu-orduak urtean})/10^6$$

Kontzentrazioa ppm-tan (bolumeneko parte-kopurua milioiko) emana badago:

Formula hau erabiltzen da:

$$Emisioak (kg/urte) = (\text{kontzentrazioa [ppm]} \times \frac{\text{poluitzailearen pisu molekularra} \left[\frac{\text{g}}{\text{mol}} \right]}{22,4 \left[\frac{\text{l}}{\text{mol}} \right]} \times \text{Emaria [Nm}^3/\text{h]} \times \text{Instalazioaren funtzionamendu-orduak urtean}) / 10^6$$

Mol baten bolumena, kondizio normaletan, 22,4 litrokoa da (273,15 K eta 101,3 kPa).

Edo erlazio hauek erabiliko dira:

Nondik	Nora	Honekin biderkatu:
ppm NO _x	mg/Nm ³	2,05
ppm SO _x	mg/Nm ³	2,86
ppm CO	mg/Nm ³	1,25
ppm N ₂ O	mg/Nm ³	1,96
ppm CH ₄	mg/Nm ³	0,71

KALKULATUA

Estatu mailan edo nazioartean onartutako zenbatespen-metodoak erabiliz egindako kalkuluetan eta industria-sektoreko emisio-faktore esanguratsuetan oinarritutako emisio-datua da. Hauek dira datu kalkulatuak:

- ❑ Jarduera-datuak (fuel-olioaren kontsumoa, ekoizpen-tasak etab.) eta emisio-faktoreak erabiliz egindako kalkuluak.
- ❑ Temperatura, erradiazio globala eta horrelako aldagaiak erabiliz egindako kalkulu konplexuagoak.
- ❑ Masa-balantzeetan oinarritutako kalkuluak.
- ❑ Argitaratutako erreferentzietan deskribatutako emisioak kalkulatzeko metodoak.

Emisio-faktoreetan oinarritutako kalkuluaren adibidea da taula hau:

ERAGIKETA	EMISIO-FAKTOREA
Edozein prozesu	kg poluitzaile/tona produktu
	kg poluitzaile/sartutako tona lehengai
Errekuntza industrialia	kg poluitzaile/kWh GN
	kg poluitzaile/Nm ³ GN
	kg poluitzaile/therm GN
	kg poluitzaile/tona erregai (fuel-olioa, propanoa, gasolioa, ikatza, kokea...)

ZENBATETSIA

Zenbatespen ez-normalizatuetan oinarritutako emisio-datua da; hipotesi edo iritzi baimenduetatik ondorioztatzen da. Hauek dira datu zenbatetsiak:


- ❑ Argitaratutako erreferentzietan oinarritzen ez diren iritzi baimenduak.
- ❑ Suposizioak, emisioak zenbateteko metodologia onarturik edo jardunbide egokien gidarik ez badago.

2.- ELEKTRIZITATE-SORKUNTZA

2.1.- PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Errekuntza-prozesua erregaiaren elementuekin oxigenoa azkar konbinatzea dela esan daiteke. Erregaiaren elementu kimiko nagusiak karbonoa, hidrogenoa eta sufrea dira. Azken hori ez da oso garrantzitsua bero-iturri gisa.

Karbonoa eta hidrogenoa oxigenoarekin erabat erretzen direnean, CO₂ eta H₂O bihurtzen dira. Erreakzio hauek gertatzen dira:



Errekuntzaren helburu nagusia ahalik eta bero gehien askatzea da, errekuntza ez osoaren eta gehiegizko airearen ondorioz gertatzen diren galerak minimizatuz. Erregaiaren elementuen eta konposatuen oxidazio osoak osagaiak, nahasteak edo turbulentsiak su hartu ahal izateko behar den bezainbesteko tenperatura handia eta erreakzioa osatzeko behar den denbora izatea eskatzen du.

2.1.1.- Erregai solidoen (ikatz birrindua) errekuntza

Ikatza birrindu ondoren, galdaran edo lurrun-sorgailuan erretzen da. Ikatza errekuntzak sortutako beroa bero-trukagailuko hodian barrenean higitzen den uretara pasatzen da, eta presio (160-300 bar) eta tenperatura (530-600 °C) altuan dagoen lurrina sortzen da. Lurrin hori alternadore bat mugitzen duen lurrin-turbina batean hedatzen da energia elektrikoa sortzeko.

Hainbat motatako galdara eta lurrin-sorgailu erabiltzen da. Galdarak hondo lehorrekoak (DBB: *Dry Bottom Boiler*) eta hondo hezekoak (WBB: *Wet Bottom Boiler*) izan daitezke.

Hondo lehorreko galdarak (DBB) ganbararen hormen edo bero-trukagailuen inguruko eremuetako errautsen fusio-tenperatura baino tenperatura txikiagotan egiten dute lan (sugarraren erdiko tenperatura partikulen fusio-tenperatura baino handiagoa izan daitezkeen arren). Galdara-mota horretan errautsen % 10-20 inguru

hondo lehorrera pasatzen da eta hondoko errauts moduan ateratzen da; gainerako % 80-90a errauts lurrunkor gisa ateratzen da irteera-gasen korrontearekin batera eta hauspeagailu elektrostatikoekin ezabatzen da.

Hondo hezeko galdaretan (WBB: *Wet Bottom Boiler*) errautsak egoera likidoan ateratzen dira. Galdara-mota hori errekuntza-tenperatura errautsen fusio-tenperatura (1.400 °C) baino handiagoa denean erabiltzeko garatu da. Errautsen parte handi bat horietara joaten da eta era likidoan joaten da horietatik irteera-zuloetara. Egitura hori izanik, errauts lurrunkorrak galdara-zepa bihur daitezke errekuntza-ganberan.

2.1.2.- Erregai likidoen (fuel-olioa) errekuntza.

Fuel-olioa petrolioaren deribatua da, eta petrolio horren jatorriaren arabera, haren osagaiak ere desberdinak izan daitezke. Osagai hauek ditu: hidrokarburo alifatikoak, ziklikoak eta aromatikoak, sulfre-, nitrogeno- eta oxigeno-konposatuak eta beste zenbaiten aztarnak, hala nola, nikela, burdina, banadioa, molibdenoa, kloroa eta fluorra.

FO astunarentzat erabiltzen diren galdaren ganberak ikatza erretzeko erabiltzen direnen antzekoak dira.

Fuel-olio astuna erretzeko, eragozpen hauek gerta daitezke:

- Berotan garraiatzeko metatu beharra eta, biskositate handikoa denez, berriz berotu beharra.
- Koke-partikulak eratzeko joera.
- Depositu korrosiboak eratzea.

Lehen bi arazoak pisu molekular handiaren eta osagai batzuen izaera asfaltikoaren ondorio dira. Azkena, berriz, erregaiak sulfrea, nitrogenoa, banadioa eta beste zenbait metal dituelako gertatzen da.

2.1.3.- Erregai gaseosen (gas naturala) errekuntza

Gas naturalak metano-ehuneko handi bat (oro har > % 85) eta etanoa, propanoa, butanoa edo geldoak (normalean, nitrogenoa, karbono dioxidoa eta helioa), proportzio aldagarrian, izaten ditu.

2.1.3.1.- Gas-turbinak

Gas-turbinak, funtsean, hiru elementu izaten ditu: konpresorea, errekuntza-ganbera eta hedapen-turbina. Gas naturala errekuntza-ganberan injektatzen da; hor aire konprimituarekin erreakzionatu eta errekuntza gertatzen da. Gas beroak gas-turbinara pasatzean, gasen energia termikoa sorgailua mugitzen duen energia mekaniko bihurtzen da. Gas-turbinak zenbait errekuntza-instalaziotako –ziklo konbinatuko unitateetako eta baterako sorkuntzako instalazioetako– parte bezala erabiltzen dira.

2.1.3.2.- Gas-galdarak

Ikatz eta fuel-olioko galdaretan bezala, galdara hauek ere bero-transferentziako hodietan zehar mugitzen den ura –gas beroak ukitzean eta erradiazioz– berotzeko moduan diseinatzen dira. Horren ondorioz, lurruna tenperatura eta presio handitan lortzen da, elektrizitatea sortzeko.

2.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK: POLUITZAILEEN IDENTIFIKAZIOA

Ondorengo taulan hauek ikus daitezke: alde batetik, EPER ezartzeko gidaliburuan azaltzen diren poluitzaile atmosferikoen zerrenda dago, orientazio-moduan; bestetik, “50 MW-ekoa baino errekuntza-ahalmen termiko handiagoko errekuntza-instalazioetako” prozesuetan emiti daitezkeen eta, dagokionean, emisio-faktorea duten poluitzaileen zerrenda azaltzen da.

POLUITZAILEAK	1,1 epigrafea
CH ₄	♦
CO	♦
CO ₂	♦
N ₂ O	♦
NO _x	•
SO _x	♦
As eta konposatuak	♦
Cd eta konposatuak	♦
Cr eta konposatuak	♦
Ni eta konposatuak	♦
Pb eta konposatuak	♦
PCDD+PCDF (dioxinak+furanoak)	♦
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (PAH)	♦
Kloroa eta konposatu ez-organikoak	♦
Fluorra eta konposatu ez-organikoak	♦
PM ₁₀	♦

• Emisio-faktorerik ez duten isuritako konposatuak

♦ Emisio-faktorea duten isuritako konposatuak

Erregai fosilak erretzean atmosferara botatzen diren poluitzaile nagusiak hauek dira: SO₂, NO_x, partikulak, metal astunak eta berotegi-efektua eragiten duten gasak (CO₂, CH₄, N₂O). Beste zenbait substantzia ere bota daitezke, hala nola, HF, HCl, konposatu organiko lurrunkorrak eta dioxinak.

Poluitzaile iraunkorren artean, hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (PAH) eta konposatu organokloratuak nabarmen daitezke. Zentral termikoek, errekuntza oso ondo kontrolatuz, erregabeak minimizatu egiten dituzte. Horren ondorioz, beste sektore batzuetako errekuntza-prozesuetan baino konposatu organiko lurrunkor gutxiago emititzen dituzte energia-unitate bakoitzeko. .

Metal astunak erregaien osagai direlako emititzen dira. Fase gaseosoan edo partikulekin batera bota daitezke. Botako den metal-kantitatea, oro har, erregaiaren dagoen horren kontzentrazioaren, errekuntza-kondizioen, partikulak kontrolatzeko sistema-motaren eta metalaren propietate fisiko-kimikoen araberakoa izango da.

2.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN EMISIOEN BALIOESPENA

OINARRITUTAKO

Emisioen ebaluazioaren lehentasuna da errekuntza-instalazio handietan egin dituzten neurketak erabiltzea, baldin eta prozesuan ohiko kondizioen adierazgarri badira. Neurketarik ez badago (edo horiek adierazgarriak ez direnean), emisio-faktoreetatik abiatuta ebaluatzen dira emisioak (kalkulua).

Emisioak masa-balantzeak, emisio-faktoreak edo beste kalkulu-metodo egiaztatutako erabiliz kalkula daitezke.

Emisioak ebaluatzeko, materia-balantzeak erabiltzea komeni da, baldin eta prozesuko edo etapetako sarrera eta irteeretan poluitzaileen informazioa badugu: CO₂, SO₂.

Emisio-faktoreak esaten zaie isuritako substantzia baten kantitatea adierazten duten ratioei, betiere, produktu edo lehengai tona bakoitzeko, kontsumitutako erregai-unitate bakoitzeko edo beste erreferentzia batekiko.

1. taula: Zentral termikoentzako emisio-faktoreak.

ERREGAIA	CH ₄ (g/GJ)	CO (g/GJ)	CO ₂ (kg/GJ)	N ₂ O (g/GJ)	As (mg/t)	Cd (mg/t)	Cr (mg/t)	Ni (mg/t)	Pb (mg/t)	Dioxina k (ng/t)	HAP (mg/t)
Harrikatza	0,6	14	93,7	0,8	100	2,7	100	200	18,93	100	0,2604
Fuel-olioa	0,7	15	76,3	14	500	1000	2500	35000	1300	100	
Gasolioa	0,03	15	73,4	14						20	
Gas naturala	0,1	19	55,8	3							

Iberdrolaren arabera, UNESAk eta Ingurumen Ministerioak adostutako faktoreak.
Iturria: CORINE-AIRE 1997, 1998, 1999 eta 2000.

Oharra: Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisio-eskubideen salerosketaren mendeko sektoreek CO₂-aren emisioak kalkulatzeko metodologia espezifikoak dute, Batzordearen 2004/156/EE Erabakiaren arabera; erabaki horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentarauaren arabera, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak jakinarazteko eta horien segimendua egiteko zuzentarauak ezartzen dira.

2. taula: 10 mikrako partikula iragazkorren (PM₁₀) edo tamaina txikiagoen frakzioa PM iragazkorrean.

	PM10 PMn %
Harrikatzen bituminoso edo subbituminoso birrindua DBB ¹ galdaretan, horma-erregailu eta elektroiragazkidunetan.	% 67
Elektrizitatea sortzeko fuel-olioko multzikloidun galdarak	E.E. ¹
Elektrizitatea sortzeko gas naturaleko galdarak	% 100

¹ Elektrizitatea sortzeko fuel-olioko eta elektroiragazkidun galdaretan, PM₁₀ PMaren % 63 da, eta kontrolik gabeko sistemetan % 71.

Fuel-olioko eta multzikloidun industria-galdaretan, PM₁₀ PMren % 95koa da.

2.4.- EMISIOEN KALKULUA. ADIBIDE PRAKTIKOA

□ NO_x eta SO_x

Errekuntza-instalazioetan neurketa jarraituak egiten dira tximinian. Taulako zenbatekoek tximinian egindako neurketen orduko batezbestekoa adierazten dute:

Aldia	Kontzentrazioak			Erregaia elikatzeko erregimena (Qf) (tona / h)
	O ₂ (% V)	SO ₂ (ppmvd)	NO _x (ppmvd)	
1:00	2,2	648	209,2	30,0
2:00	1,9	680	202,6	31,5
3:00	2,1	674	206,3	33,0
4:00	1,9	650	218,5	36,2
5:00	1,9	623	213,8	36,8
6:00	1,8	689	207,0	35,3
7:00	2,1	642	206,1	36,3
8:00	2,0	649	211,8	38,5
9:00	2,1	651	216,2	40,0
10:00	1,8	668	212,5	46,3
11:00	2,1	649	216,2	46,0
12:00	2,0	656	200,6	46,5
13:00	2,1	681	216,7	46,0
14:00	1,9	672	220,5	46,2
15:00	1,9	688	213,8	46,8
16:00	1,8	676	214,0	45,9
17:00	2,0	659	209,1	46,3
18:00	2,0	661	210,8	46,5
19:00	2,1	662	216,2	46,0
20:00	2,0	671	201,8	46,5
21:00	2,1	652	205,4	48,0
22:00	1,9	648	222,8	50,2
23:00	1,9	663	213,8	49,8
24:00	1,8	672	214,0	40,3
Batez besteko balioa		661,83	211,65	

¹ DBB: dry bottom boiler. Hondo lehorreko galdarak (DBB) ganberaren hormen edo bero-trukagailuen inguruko eremuetako errautsen fusio-tenperatura baino tenperatura txikiagotan egiten dute lan.

Kontzentrazioek oinarri lehorreko orduko batezbestekoak adierazten dituzte % 3 oxigenorekin zuzenduta.

Egunean zehar emititutako kopurua kg-tan:

$$E_x = \frac{C_D}{10^3} \times V_g \times M_D$$

E_x = egunean botatako poluitzaile-kantitatea.

C_D = eguneko batez besteko kontzentrazioa adierazten du, oinarri lehorrean mg/Nm³-tan adierazia eta % 3 oxigenorekin zuzendua fuel-olio eta gasarentzat eta % 6rekin ikatzarentzat.

SO₂-aren kontzentrazioa ppm-tik mg/Nm³-ra pasatzeko, 2,858 koefizienteaz biderkatu behar da; eta NO_x-arena ppm-tik mg/Nm³-ra pasatzeko, 2,054 koefizienteaz.

C_D = gas-bolumena erregai-unitateko, oinarri lehorrean adierazia eta % 3 oxigenorekin zuzendua fuel-olio eta gasarentzat eta % 6rekin ikatzarentzat. [Nm³/kg erregai]

M_d = egunean zehar kontsumitutako erregai-kantitatea tonatan.

Erregai-unitateko gas-bolumena kalkulatzeko:

$$V_g = V_{es} \times \frac{20,9}{20,9 - \%X}$$

V_g = erregai-unitate bakoitzeko tximinia-irteerako gas-bolumena [Nm³/kg erregai] % X oxigenorekin zuzendua, non kontzentrazioa eta oinarri lehorra ordezkaturik dauden.

V_{es} = errektuntza-gas lehorren bolumen estekiometrikoa, erregai unitateko.

% X = oxigenoaren %, zuzendu nahi den bolumenean adierazita.

20,9 = airearen osaera 20,9 % O₂ dela suposatuz.

V_{es} faktorea, irteerako gas lehorren bolumen estekiometrikoa adierazten du erregai-unitateko. Errekuntza-osagai guztiak barne hartzen ditu, ura izan ezik.

V_{es} faktorea erregaiaren oinarritzko analisitik abiatuz kalkula daiteke:

$$V_{es} = 0,209723x(H\%) + 0,088931x(C\%) + 0,033172x(S\%) + 0,007997x(N\%) - 0,026424x(O\%)$$

V_{es} = gas lehorren bolumen estekiometrikoa [Nm³/kg erregai]

H %, C %, S %, N %, O % = kontsumitutako erregaiaren konposizioaren pisuaren ehuneko gordinaren gainean.

Hortaz, % 84 C, % 11 H, % 1 S, % 1,5 N eta % 0,5 O konposizioa duen fuel-olioa izanez gero, kalkulu hau egin beharko genuke:

$$V_g = 0,209723 \times (11) + 0,088931 \times (84) + 0,033172 \times (1) + 0,007997 \times (1,5) - 0,026424 \times (0,5) = 9,809113 \text{ Nm}^3/\text{kg}$$

Jarraituko neurriak % 3 O₂-arekin zuzenduta daude. Emisioak kalkulatzeko, gasen bolumenak ere oinarri berarekin zuzendurik egin beharko lukete:

$$V_g = 9,809113 \frac{20,9}{20,9 - 3} = 11,453098 \text{ Nm}^3/\text{kg}$$

SO₂-ari dagokionez, eguneko batez besteko kontzentrazioa hau da:

$$C_{D_SO_2} = 2,858 \times \frac{\sum_{i=1}^{24} \text{ppm}_i}{24} = 2,858 \times 661,83 = 1891,52 \text{ mg/Nm}^3$$

SO₂ emisioak egun batean hauek izango lirateke:

$$E_{D_SO_2} = \frac{1891,52}{10^3} \times 11,453098 \times 1.014,9 = 22.000 \text{ kg/egun (N kodea: neurtua)}$$

Urteko emisioak eguneko balioak batuz kalkulatzen dira.

□ Partikulak:

Neurketa-sistema jarraituak opakotasunak ere neurtzen du. Korrelazioaren bitartez, emititutako partikula-kopurua kalkula daiteke. PM₁₀ partikulen frakzioa kalkulatzeko urtean guztira emititutako partikulak hartu behar dira kontuan. Ondoren, 2. taulako PM totaleko PM₁₀ partikulen frakzioa aplikatu behar zaio. Ez da ezagutzen 30 MW-ekoa baino ahalmen termiko handiagoa duten fuel-olio galdaretako PM₁₀. < 30 MW-eko galdaretan multizikloiaren ondorengoak adierazten duena bezalako frakzioa duela suposatuko da: % 95.

Partikula iragazkorren urteko emisioa 333.518 kg-koa bada, PM₁₀:

$$PM_{10} = 333.518 \text{ kg PM/urte} \times 0,95 \text{ PM}_{10}/\text{PM} = 317.000 \text{ kg PM}_{10}/\text{urte}$$

□ CO₂

Fuel-olioaren urteko kontsumoa 15.792.000 GJ-ekoa izan zen eta CO₂ emisioak, berriz, hauek:

$$E_{CO_2} = 15.792.000 \text{ GJ} \times 76,3 \text{ kg/GJ} = 1.204.929.600 \text{ kg CO}_2 \text{ K kodea: kalkulatu.}$$

3.- KOKE-INSTALAZIOAK

3.1.- EKOIZPEN-PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Harrikatzaren karbonizazioa harrikatz bituminosoaren airerik gabeko pirolisia edo tratamendu termikoa da. Horren emaitza “koke” izeneko hondakina eta “lurrinak” dira eta horiek kondentsatzean eta bereiztean azpiproduktu hauek sortzen dira: mundruna, olio arina, amoniako-likorea eta bateria-gasa

Koke metalurgikoa ekoizteko prozesu ohizkoena hau izaten da: koke-labeetan tenperatura handitan (900 – 1150 °C inguruan) ikatzaren osagai lurrunkorrek lurrundu eta ikatza koke bihurtzen da.

Orain, ekoizten den koke gehiena burdingintza eta altzairugintzako lehengai gisa erabiltzen da (koke metalurgikoa).

Koke-labeen baterian lortutako gasa oso erregai erabilgarria da, baina disoluzioan substantzia organiko eta ez-organiko asko dituzten hainbat osagai, hala nola, harrikatz-mundruna eta amoniako-likorea, kondentsatu egin behar izaten dira.

Kokea ekoizteko prozesua azpiprosesu hauetan bereiz daiteke:

- Ikatza maneiitzea: biltegitratzea, nahastea, labera eramatea, ...
- Koke-labeen bateria: ikatza kargatzea labeak berotzea, koke bihurtzea, kokea ateratzea eta kokea bat-batean hoztea edo urez itzaltzea.
- Kokea maneiitzea: ehotzea, bahetzea eta kokea metatzea.
- Bateria-gasaren tratamendua: hoztea, azpiproduktu balorizagarriak berreskuratzea, desulfurazioa, ...

Metalurgia-maila egokiko kokea ekoizteko errauts- eta sufre-eduki gutxiko eta koke bihurtzeko propietate oneko harrikatz bituminosoak erabiltzen dira.

Koke-labeen bateria, bestetik, batera jarduten duten 10-100 labez osatuta egoten da. Oro har, labe bakoitzak 10 eta 35 tona ikatz prozesatzeko ahalmena izaten du eta etenik gabe funtzionatzen du.

Labe bakoitzak hiru zati nagusi izaten ditu: koke bihurtzeko ganbera, berokuntza-ganbera eta birsortzeko ganbera. Berokuntza-ganbera batzuek errekuntza-prozesuak egiten dituzte (bateria-gasa), beste batzuek, berriz, errekuntza horretako gasak ebakuazio-sistemara eramaten dituzte. Berokuntza uniformeak izan dadin, lan bat eta bestea egiten dituztenak txandakatu egiten dira.

Ikatz kargatu ondoren, atak itxi eta labeko karga-ahoen atakak zigilatu egiten dira. Koke-masaren erdiko tenperatura 1.100-1.150 °C bitartekoa denean, kalitate handiko koke metalurgikoa lortzen da; izan ere, ikatz-masaren gai lurrunkorren distilazioa gertatzen da. Prozesu horrek 14 eta 24 ordu bitartean irauten du.

Airea ukitzean kokea erretzen hasten da bat-batean. Horregatik, kokea urez ihinzatu egiten da itzal dadin. Horren ondorioz, lurrina bortizki askatzen da.

Harrikatza karbonizatzean sortzen diren produktuen kalitatea eta kantitatea, erabilitako harrikatzaaren propietateen, prozesuko kondizioen eta planta bakoitzean produktu balorizagarriak berreskuratzeko dauden instalazio-moten arabera izango dira.

Oro har, bateria-gas gordinaren (COG) tratamenduan urrats hauek izaten dira:

- COGaren hoztea eta mundruna berreskuratzea. Gasa 800 °C inguruko tenperaturan sartzen da irteerako hodi-biltzailera eta 80 °C-raino hozten da. Etapa horretan kondentsatzen da ur eta mundrun gehiena. Hauspeagailu elektrostatikoko batek mundrun-hodei handiena bereizten du.
- COGaren desulfurazioa. COGak H₂S eta hainbat konposatu organosulfuratu (CS₂, COS, merkaptanoak, etab.) ditu. Desulfurazio-teknikak oso eraginkorrak dira H₂S ezabatzeke, ez ordea konposatu organosulfuratuak ezabatzeke.
- Amoniakoa berreskuratzea.
- Olio arina berreskuratzea. Olio arinaren osagai nagusiak hauek dira: bentzenoa (% 60-80), toluenoa (% 6-17), xilenoak (% 1-7) eta naftalenoa (% 0.5-3).

3.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK: POLUITZAILEEN IDENTIFIKAZIOA

Ondorengo taulan hauek ikus daitezke: alde batetik, EPER ezartzeko gidaliburuan azaltzen diren poluitzaile atmosferikoen zerrenda dago, orientazio-moduan; bestetik, kokea ekoizteko prozesuetan emiti daitezkeen eta, dagokionean, emisio-faktorea duten poluitzaileen zerrenda azaltzen da.

3. taula: EPER Aireko poluitzaileak.

POLUITZAILEA	1,3 epigrafe a
CH ₄	♦
CO	♦
CO ₂	♦
NH ₃	♦
NMVOC	♦
NO _x	♦
SO _x	♦
As eta konposatuak	♦
Cd eta konposatuak	♦
Cr eta konposatuak	♦
Cu eta konposatuak	♦
Hg eta konposatuak	♦
Ni eta konposatuak	♦
Pb eta konposatuak	♦
Bentzenoa	♦
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (PAH)	♦
HCN	♦
PM ₁₀	♦

• Emisio-faktorerik ez duten isuritako konposatuak

♦ Emisio-faktorea duten isuritako konposatuak

Emisioak batez ere ikatza kargatzean, ganberak berotzean, koke bihurtzean, labeko kokea hustean eta kokea bat-batean hoztean edo itzaltzean gertatzen dira.


4. taula: Koke-ekoizpenarekin zerikusia duten emisio nagusiak

ETAPA	POLUITZAILEAK
Ikatza eta kokea deskargatzea, nahastea, kargatzea eta deskargatzea	Partikula solidoak
Koke-labeen bateriak	Bateria-gasaren errektuntza-gasak: karbono dioxidoa (CO ₂), nitrogeno-oxidoak (NO _x), karbono monoxidoa, sulfre-oxidoak (SO _x) Partikula solidoak eta metal astunak.
Labearen ateetako ihesak, hodi biltzailea deskonektatzea tximiniako bypass bidez	Bateria-gas gordina (NMVOC, NH ₃ , bentzenoa,... -osagaien arabera-)

Bateria-gas gordinaren osagaiak koke bihurtzeko denboraren eta ikatz-motaren arabekoak izango dira. Bateria-gas gordinak nahikoa bero-ahalmen handia du, hidrogenoa, metanoa karbono monoxidoak eta hidrokarburoak dituelako. Horiez gain, beste produktu balorizagarri batzuk ere baditu, hala nola, mundruna, olio arinak (batez ere BTX: bentzenoa, toluenoa eta xilenoak), sulfrea eta amoniakoa.

Hurrengo irudian koke-labeen bateria bateko emisio-iturri nagusiak agertzen dira.

1. irudia: Koke-labeen bateriako ohizko fluxu-diagrama. Bertan, emisio-iturri nagusiak agertzen dira (Iturria: BREF, 2000)



3.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO EMISIOEN BALIOESPENA

Emisioen ebaluazioaren lehenetsuna da kokea ekoizteko instalazioetan egin dituzten neurketak erabiltzea (Ziurtagiriak emateko Erakunde Baimendu batek egindakoak ahal bada), baldin eta prozesuan ohiko kondizioen adierazgarri badira. Neurketarik ez badago (edo horiek adierazgarriak ez direnean), emisio-faktoreetatik abiatuta ebaluatzen dira emisioak (kalkulua).

Emisioak masa-balantzeak, emisio-faktoreak edo beste kalkulu-metodo egiaztatuak erabiliz kalkula daitezke.

Emisioak ebaluatzeko, materia-balantzeak erabiltzea komeni da, baldin eta prozesuko edo etapetako sarrera eta irteeretan poluitzaileen informazioa badugu: CO₂, SO₂.

Emisio-faktoreak esaten zaie isuritako substantzia baten kantitatea adierazten duten ratioei, betiere, produktu edo lehengai tona bakoitzeko, kontsumitutako erregai-unitate bakoitzeko edo beste erreferentzia batekiko.

Emisio-faktoreak ematen dituzten bibliografia-iturri nagusiak hauek dira:

Batez ere iturri hauek kontsultatu dira emisio-faktoreak lortzeko:

- **EMEP/CORINAIR (Atmospheric Emission Inventory Guidebook).**
- **EPA (Emission Factor and Inventory Group).**
- **IPPC (Burdina eta altzairua ekoizteko BREF dokumentua).**
- **Karlsruhe**
- **National Emission Inventory (NAEI-UK)**
- **National Pollutant Inventory (NPI-Australia)**

Koke-labeen baterietan denboran zehar aldatu egiten diren emisio-iturri asko samar egoten dira. Adibidez, ate, karga-ahoetako ataka eta labeko gasen irteerahodietatik emisio erdijarraituak, kokea ateratzean eta itzaltzean izaten diren emisio etenak, etab. Ihes-emisio horiek zenbatzea, ordea, zaila da.

Emisio-faktoreak alderatzeko, instalazio bakoitzeko parametro zehatzak kontuan izan behar dira. Labeetako ateetatik ateratzen diren emisioak asko aldatzen dira ate-motaren, labeen tamainaren eta mantentze-mailaren arabera.

